

**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO  
PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO  
TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**INDARREAN 2008KO URTARRILAREN 1ETIK**

**(2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARREAN ONARTUA)**

**(G.A.O. 253 ZKIA-2007.12.31)**

## **UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

### I- XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. Artikulua.**

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

#### **2. Artikulua.**

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

### II- ZERGAGAIA

#### **3. Artikulua.**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren probetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.

### III- SUBJEKTU PASIBOA

#### **4. Artikulua.**

- 1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.
- 2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- 3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

#### **5. Artikulua.**

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

#### IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

##### **6. Artikulua.**

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

#### V- OINARRI EZARGARRIA

##### **7. Artikulua.**

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

#### VI- KUOTA

##### **8. Artikulua.**

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.-Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

#### VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

##### **9. Artikulua.**

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, iharduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; iharduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren lehen gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

### **10. Artikulua.**

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## IX- TASEN KUDEAKETA

### **11. Artikulua.**

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2007ko abenduaren 31ean onartu zen behin betikoz eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

## **ERANSKINA**

Batzarraldiaren data: 2006ko azaroak 14.

### **TARIFAK**

#### **A. HESIAK, ALDAMIOAK, EUSTAGAK ETA HONDAKINAK EDO MATERIALEAK GORDETZEKO EDUKINONTZIAK**

- a) Eustagak mota guztietako obretan
  - m\_ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko.....0,17 Euro
  - Bide publikoan jarritako aldamioko fijoetan ezarritako babesak, hauen azpitik libreki ibiltzea galeraz dezaten euskarri edo erriostrekin. m\_ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko.....0,27 Euro
- b) Babes berdinak aldamiok erlaizean jarri egon daitezkeenean, 3m. baino altuera handiagoetan, bide publiko gainean jarri gabe, hauen azpitik libreki ibil daitezkeelarik.
  - m\_ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko.....0,18 Euro
- c) Zintzilikako aldamiok, hesirik gabe.
  - m\_ko edo honen zatiko eta egun edo honen zatiko.....0,18 Euro
- d) Hesiak kanpoko eustagak.
  - Bakoitzeko eta eguneko edo honen zatiko.....0,66 Euro
- e) Hondakinak edo materialak gordetzeko edukinontziak.
  - m\_ko edo zatikiko eta egun edo zatikiko .....0,60 Euro

### **TARIFA EZARTZEKO ARAUAK**

Justifikaturiko arrazoirik gabe, idatzi honek aipatzen dituen obrak bi hilabete baino gehiagoz geldituko balira, tarifa hau ezartzeagatik ateratzen diren zenbatekoak, hirugarren hilabetetik aurrera %100eko errekarua izango dute, eta obrak amaiturik probetxamenduek jarrai dezaten, zenbatekoak %200ean errekaratuko dira.

#### **B. ESPALOIEN GAINETIK ETXALDETARA IRISTEKO IBILGAILUEN SARRERA ETA BERAUEN APARKAMENDU ERRESERBA.**

- a) Garaje publiko edo industri edo merkataritza establezimendu:
  - Metro linealeko edo zatia eta urteko edo zatia ..... 114,39 Euro
- b) Zerbitzu partikularreko garajeak
  - Metro linealeko edo zatia eta urteko edo zat..... 51,90 Euro
- c) Noizik behineko beharraren ondorioz erabilera ezberdinetarako leku erreserba.
  - Metro linealeko edo zatia eta urteko edo zat. .... 1,50 Euro

### **TARIFA EZARTZEKO ARAUAK:**

- 1.- Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduen ematean interesaturiko Entitate eta partikularrek, eskatutako aprobetxamenduaren zabalera eta izakeraren eskari zehaztua aurkeztuko dute Idazkaritzan. Bide publikoko aprobetxamendua emateko nahitaezko baldintza izango da a) eta b) ataletan aipatutako garajeen baldintzek hiru ibilgailuentzako tokia izatea.
- 2.- Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduak eman edo ukatzeko kontutan hartuko dira hirigintza alderdiak, trafiko erregulazioa edo emate eskariak eragin ditzan bestelako alderdiak.
- 3.- Aprobetxamendurako baimena edozein unetan indargabetzerik izango da, erabil dezanak kalet-ordaineko inolako eskubiderik izan gabe, eta zudu orokorreko irizpide eta egoerei erantzunez.
- 4.- Espaloi pasabideen zabalera beheratutako ertzaren, beheratze hori egon dadinean, metro linealen arabera ezarriko da. Espaloiaren ertza ez balitz beheraturik egongo, edo kendurik, neurria, bere zabalera osoan, kasu bakoitzean izan dadin lokal edo orube sarrerako tartearen luzera erabilgarria izango da.
- 5.- Instalazio, zaintza, birmoldaketa, pasabide kentze eta aparkamendu erreserbako gastuak, baita berauen seinaleztapena ere, eskatzailearen kontura izango dira.

### **C. FERI ETA HERRI FESTETAKO POSTUAK**

- a) Txoznak ..... 34,29 Euro
- b) Txurreriak, m\_ko edo honen zatiko:..... 6,84 Euro
- c) Pastel, karamelu, gozoki, fruitu lehor, patata frijitu bitxikeri, jostailu, liburu etabar saltzeko txabolak  
- m\_ko edo honen zatiko eta eguneko..... 6,84 Euro
- d) Tiro, anila eta bestelako jokuetako txabolak.  
- m\_ko edo honen zatiko eta eguneko..... 13,90 Euro
- e) Tonbola, errifa, salmenta azkarra eta antzekoak  
- m\_ko edo honen zatiko eta eguneko..... 13,90 Euro
- f) Kulunpio, egan egiten duten gailuak, kalesitak, zalditxo jokoak, bunpersak eta, orohar higitzen den ezein gailu mota  
- m\_ko edo honen zatiko eta eguneko ..... 6,84 Euro
- g) Talka-autoen pistak.  
- m\_ko edo honen zatiko eta eguneko ..... 4,60 Euro
- h) Jaietako edonolako artikuluak saltzeko saltokiak  
-m\_ko edo honen zatiko eta eguneko ..... 6,84 Euro
- i) Zirkoa:  
- Berrehun ikusle baino gutxiagoko edukiera, emanaldi egun bakoitzeko ..... 207,20 Euro  
- Berrehun eta bostehun ikusle bitarteko edukiera, emanaldi egun bakoitzeko ..... 341,88 Euro  
- Bostehun ikusle baino gehiagoko edukiera, emanaldi egun bakoitzeko ..... 559,44 Euro

## **TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK**

- 1.- Herriko jaietan jartzen diren behin-behineko kioskoei, jertse salmenta, edo musika zintak, pultserak... etabar asteroko merkatu postuei bezala kobratuko zaie.
- 2.- Feri-inguruko lurra adjudikatzeko enkante sistema erabiliko balitz, berau kasu bakoitzean Udalak onar ditzan oinarri eta baldintzen arabera egingo da.
- 3.- Txosnak jartzeko eskariak soilik gizarte, kultura edo onurazko helburura bideraturiko iharduna izan dezaten pertsona taldeek egin ditzakete. Eskariak Idazkaritzan aurkeztuko dira jarri baino hilabete lehenago. Halaber, txosnak jartzeko eskariek berauen zabalera zehaztuko dute.
- 4.- Txosnei 150,25 €tako fidantza jartzea eskatuko zaie. Fidantza hau bueltatuko zaie festak amaitu ondoren dena txukun uzten baldin badute.
- 5.- Baimendutako instalazio bakoitza jendeak ikus ahal dezan kanpoko errotulo baten bitartez ezagutzera emango da, zeinetan entitate eskatzailearen izena azalduko bait da.
- 6.- Jarrian izan direneko jaiak amaitu eta gehienez ere hiru egun pasa ondoren idazatal honek aipatzen dituen instalazioak bide publikotik kendu ez badira, justifikaturiko arrazoirik gabe, Tarifa hau ezartzeagatik ateratzen diren zenbatekoak %100eko errenergua izango dute. Errenergua ezarri eta zortzigarren egunetik aurrera, Udala arduratuko da desmontaiaz, instalazioak egindako zorrak gehi sortutako lanaren kostea ordaindu arte zaintzapean geldituko direlarik.
- 7.- Festetako Batzordeari dagokio edozein gorabeheraren inguruan irtenbide bat proposatzea, baldin eta arau hauetan ezer esaten ez bada gorabehera horri buruz.

### **D.-MAHAL, AULKI, BEILARI, ZOLADURA, LORAPOTE, EKITAKO EDO ANTZEKO INSTALAKUNTZAKO IHARDUERA**

- a) 30 m<sup>2</sup> arte, urtean ..... 275,58 €uro
- b) 30 m<sup>2</sup> baino gehiago, urtean ..... 440,86 €uro.

Udal Aparejadoreak egingo du dagokion neurketa.

### **TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK**

- 1.- Udal Jabariaren erabilerak eskatu egingo du, beti ere, Udalbatzaren akordioa.
- 2.- Udal baimena ematean bestelako prozedurarik jartzen ez bada, segidan adierazten moduan egingo da ordainketa:
  - a) Aprobetxamendu berria balizko kasuetan, dagokion baimena jaso aurretik.
  - b) Dagoeneko baimendu eta luzaturiko aprobetxamenduen kasuan, urte naturaleka, behin prezio publikoen matrikuletara sartzen denean.
- 3.- Kopuru eskagarriak, epigrafekiko agertzen diren kopuruetan, murriztezinak izango dira.

4.- "Herriko Plazako Azoka" edo araudi berezia duen beste edonolako erabileran tarifa hau ez da aplikagarria izango.

#### **E. ASTEROKO MERKATUA:**

Segidan zerrendatzen diren postu hauen instalazioa, eguneko, ondorengo ordainketak medio:

- a) Baserriko barazkiak:
  - Metro lineal bakoitza.....0,42 Euro
- b) Loreak, haziak, eta eratorriak
  - Metro lineal bakoitza.....3,21 Euro
- c) Urdaiazpiko, txerrikia orohar, gazta eta gurinak:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....7,75 Euro
- d) Oliba, pepintxo eta antzekoak:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....3,96 Euro
- e) Baserrikoak ez diren barazkiak, hala nola, baratxuri, patatak, fruta ezberdinak, meloiak eta antzekoak:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....5,77 Euro
- f) Fruitu lehorrak, pasak, pikuk, urrak, almendrak eta antzekoak, arraultza salmenta ere:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....2,89 Euro
- g) Pastak, gailetak, gozotegia orohar:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....5,77 Euro
- h) Txoriak, arrainak, hesibarruko animal txikiak, kaiolak, arrainontziak eta aipatu animalientzako janariak:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....3,96 Euro
- i) Liburu, aldizkari, egunkari eta eta antzekoen salmenta:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....2,25 Euro
- j) Kasetak, diskak eta antzekoen salmenta:
  - - 2,9m x 2m.ko lurzatia.....3,96 Euro
- k) Larrukiak, bitxikeria, kuadroak, jostailuak eta oparitutako gaiak:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....3,96 Euro
- l) Nekazal lanabesak eta makinaria:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....2,25 Euro
- m) Alfonbrak, tapizak, koltxoiak, ohialak, jantziak orohar:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia .....7,75 Euro
- n) Oinetakoak:

- 2,9m x 2m.ko lurzatia ..... 3,83 Euro
- o) Sukalde tresneria, burdindegia, beireria, margoturiko paperak, euritakoak eta antzekoak:
  - 2,9m x 2m. ko lurzatia ..... 3,96 Euro
- p) Enboteilaturiko edariak eta likorrak:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia ..... 7,75 Euro
- q) Sagardoak eta txakolina:
  - 2,9m x 2m.ko lurzatia ..... 3,96 Euro

#### **TARIFA EZARTZEKO ARAUAK**

- 1.- Salgaiak aurreko zerrendan aipaturiko zenbait epigrafetan sar daitezkeenean, tasarik handiena jarririk daukanaren arabera tributatuko da.
- 2.- Prezio Publikoaren ordainketa postua instalatzen denean egingo da.
- 3.- Atal bakoitzean zehaztutakoa baino zabalera handiagoa nahi dezaten postuetako jabeek 0,58 € ordainduko dute m\_ . bakoitza edo honen zatia.
- 4.- Soilik nekazal-produktuak saltzeko baserritarrek ustiatutakoak ez dira zerga honen menpe egongo.

Udalaren herri jabariko ondasunen erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik ordaindu behar diren tasak arautzeko dituen ordenantza fiskala, eranskin honetan bildutako Tarifa parte delarik, behinbetikoz onetsi zen 2007ko abenduaren 31ean.

Anoeta, 2007ko abenduaren 31.

O.E Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-